



Elurra teilatuan  
zakua lepoan  
ibili beharko dugu  
aurtengo neguan!  
Riau, riau, riau,  
Riakataplau



Negua da! Elurra, hotza eta txokolate beroa! Eta hau da umorea! Ipuinak entzun, a zelako ondo!

Bai, gustatzen zait negua. Batzuentzat tristea da egunak motzak eta kolore grisekoak izaten direlako, baina, bestalde, elurrarekin jolasteko aukera daukagu: elkarrí elur bolak botatzen, elurretako panpina egiten.


Eta zuei negua gustatzen zaizue? Ikusi dituzue lehenengo elur malutak?

Jantzi berokiak, eskularruak, bufanda eta irten kalera! Gero niri kontatu zer ikusi duzuen! Bale?

Eta lantxo batzuk ere bidali dizkizuet e!

Patxoouooak!



Lorentxo






EREDUA

**A. URTAROAK**

→ Puzzlea: Negua







PUZZLEA 2: OINARRIA

**A. URTAROAK**

→ Puzzlea: Negua

# NEGUA

HOTZA HASTEN DENEAN,  
BEROKIA JANZTEN HASTEN ZARENEAN,  
AHOTIK KEA IRTETEN ZAIZUNEAN,  
ANIMALIAK BASOAN GORDETZEN DIRENEAN,  
ZUHAITZAK HOSTORIK GABE DAUDENEAN,  
ESKULARRUAK ETA BUFANDA ERABILTZEN DITUZUNEAN,  
GAUETAN IZOTZA EGITEN DUENEAN,  
ETXEETAKO TXIMINIEK KEA BOTATZEN DUTENEAN,

## NEGUA DA...


... ETXEAN BEROTAN FAMILIAREKIN EGOTEKO GARAIA...  
HOTZA LAGUN DUEN URTAROA.













# ARBOLA



# HOSTOAK



# ESKUAK

